



**EBALUAZIO-ERRUBRIKA**  
**PROIEKTUAK.EUS – ZELULA GO!**  
**Zenbat karta? (sorta eta probabilitatea)**



| IRIZPIDEA<br>(TALDE-LANETAN)                                      | 4-BIKAINA                                                                                 | 3-AURRERATUA                                                                       | 2-EGOKIA                                                           | 1-HASIERAKOA                                                 |
|-------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------|
| <b>1.1 - Datuak interpretatzea eta sorta antolatzea (A atala)</b> | Banaketa koherentea da eta ondo arrazoituta dago.                                         | Banaketa koherentea da eta 40ra iristen da.                                        | Banaketa egiten dute, baina ez da 40ra iristen edo desorekatua da. | Ez dute banaketarik egiten, edo zenbakiak ez dute zentzurik. |
| <b>1.4 - Probabilitatea kalkulatzeko (A atala)</b>                | Zatiki, hamartar eta ehuneko guztiak zuzen daude.                                         | Kalkulu gehienak zuzen daude; akats txikiren bat.                                  | Formula aplikatzen dute, baina akats nabarmenekin.                 | Ez dute formula aplikatzen, edo emaitzak asmatuta daude.     |
| <b>2.1 - Emaitzak egiaztatzea: batura = % 100 (B2)</b>            | Egiaztatzen dute eta zergatik izan behar duen % 100 bikain azaltzen dute.                 | Egiaztatzen dute eta zergatik izan behar duen % 100 nolabait azaltzen saiatu dira. | Batzen dute, baina ez dute zergatia azaltzen.                      | Ez dute batura egiaztatzen.                                  |
| <b>8.1 - Arrazoiketa idatzia (B atala)</b>                        | Erantzun arrazoituak, hizkuntza matematikoa erabiliz (probabilitatea, zatikia, ehunekoa). | Erantzun argiak eta arrazoituak, hiztegi egokiarekin.                              | Erantzuten dute, baina «zergatik» galderari erantzun gabe.         | Erantzunik ez, edo hitz solteak, arrazoitu gabe.             |
| <b>6.1 - Aurreikustea (C atala)</b>                               | Kalkulua zuzena da eta «gutxi gorabehera» dela ondo azaltzen dute.                        | Kalkulua zuzena da eta aurreikuspena idazten dute.                                 | Kalkulua egiten dute, baina akatsekin.                             | Ez dute aurreikuspenik egiten.                               |

| IRIZPIDEA<br>(BANAKAKO LANETAN)                   | 4-BIKAINA                                                                       | 3-AURRERATUA                                                          | 2-EGOKIA                                                        | 1-HASIERAKOA                                                 |
|---------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------|
| <b>9.2 - Zuzenketa onartzea eta hobetzea</b>      | Akatsa aukera gisa erabiltzen du eta taldeari hobekuntza proposatzen dio.       | Akatsak onartu eta zuzendu egiten ditu.                               | Zuzenketa onartzen du, baina ez du fitxa hobetzen.              | Ez du akatsik onartzen, edo ez du zuzentzen.                 |
| <b>10.2 - «1-2-4»: rola eta urratsak betetzea</b> | Hiru urratsak bete ditu eta taldeakideei lagundu die.                           | Bakarka, bikoteka eta laukotean parte hartu du.                       | Urratsen bat saltatu du edo gogorazi behar izan zaio.           | Ez du bakarkako urratsa egin, edo ez du taldean parte hartu. |
| <b>10.1 - Elkarlana eta entzute aktiboa</b>       | Elkarrizketa dinamizatzen du: galdetu, laburtu eta denek ekarpenak batzen ditu. | Parte hartzen du eta besteek entzuten die; adostasunak bilatzen ditu. | Parte hartzen du, baina batzuetan besteen gainetik hitz eginez. | Ez du parte hartu, edo ez du besteek entzun.                 |

## Ebaluazio-irizpideak (Matematika, DBH 1-2)

---

Errubrikako kode bakoitza euskal curriculumeko irizpide bati dagokio:

|             |                                                                                                                                                                                                                                               |
|-------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>1.1</b>  | Problema matematikoak interpretatzea, emandako datuak antolatuz eta erlazionatuz eta formulatutako galderak ulertuz.                                                                                                                          |
| <b>1.4</b>  | Problema baten soluzio matematiko arazoitu posibleak lortzea, ezagutzak eta behar diren tresna teknologikoak mobilizatuz.                                                                                                                     |
| <b>2.1</b>  | Problema baten soluzioen zuzentasun matematikoa egiaztatzea, ebazteko beste estrategia posible batzuk aztertuz.                                                                                                                               |
| <b>6.1</b>  | Mundu errealaren eta matematikaren artean loturak ezartzea, ikerketa zientifiko eta matematikoaren berezko prozesuak erabiliz: neurtzea, sailkatzea, irudikatzea, ondorioztatzea, iragartzea eta komunikatzea, eguneroko bizitzako egoeretan. |
| <b>8.1</b>  | Informazioa komunikatzea, hizkuntza matematiko egokia erabiliz (ahoz eta idatziz) eta arazoibideak, prozedurak eta ondorioak argi eta garbi eta ordenatuta deskribatuz eta azalduz.                                                           |
| <b>9.2</b>  | Motibazio positiboa eta jarraikitasuna erakustea, kritika arazoitua onartuz matematika ikasteko egoerei aurre egitean.                                                                                                                        |
| <b>10.1</b> | Talde heterogeneoetako lanean aktiboki kolaboratzea eta harremanak ezartzea, eraginkortasunez komunikatuz, erabakiak hartuz eta iritzi informatuak emanez, eta edozein aurreiritzi edo diskriminazio desagerraraziz.                          |
| <b>10.2</b> | Taldean garatu behar diren zereginen banaketan parte hartzea, inongo diskriminaziorik gabeko inklusioaren eta entzute aktiboaren alde eginez, esleitutako rola bere gain hartuz eta norberak taldeari egiten dion ekarpenaz arduratuz.        |